

## 2. Laborategia

Hurrengo enuntziatuei dagozkien **fluxu-diagrama paper batean egin eta kodea Visual Basic-en** idatzi:

1. Zenbaki oso bat emanda, esan zenbaki horrek [2,4] tartean zenbat zatitzaile dituen (ez zeintzuk, bakarrik zenbat).
2. Pieza bati hiru errore-kontrol egin nahi zaizkio, bere altuera, zabalera eta kode bat eskatuta. ALTUERAK 7 eta 9 artean izan behar du, ZABALERAK 2.5 eta 8.5 artean, baina ezin da ez 3 ezta 3.5 izan eta KODEA, berriz, A, B, C, edo D izan daiteke. Erroretako bat detektatu bezain laster, PIEZA ONARGAITZA pantailaratuko da. Baldin kontrol guztiak zuzenak badira PIEZA ONARGARRIA pantailaratu.
3. Aurrekoaren errore kontrolekin, esan bakarrik zenbat errore kontrol pasatzen dituen.
4. Aurrekoaren berdina, baina errore-kontrol bakoitzeko dagokion errore mezua idatziz (zabalera okerra bada, esan zabalerak zein tartean izan behar duen, etabar...).

Hurrengo ariketei dagokien **kodea Visual Basic-en** idatzi:

5. Irakurri teklatutik erosi diren pieza kopurua. 10 pieza baino gehiago erosi ezkero %5-eko deskontua aplikatuko zaio, baldin 50 baino gehiago %10 eta 100 baino gehiagori %25a. Pieza bakoitzaren balioa 120 €-koa da. Pantailaratu, fakturaren totala, aplikatutako deskontua eta gehitu %16-ko bez-a.
6. Irakurri teklatutik 1 eta 40 artean dagoen zenbaki bikoiti bat. Emandako zenbakia zuzena bada “zuzena da” mezua idatzi eta bestela errore mezu bat idatzi.
7. Irakurri teklatutik karaktere bat eta bokala baldin bada “Bokala da” idatzi.
8. Irakurri teklatutik karaktere bat eta kontsonantea bada “Kontsonantea da” idatzi.